



ABUELA MARIA LUISA



Taldea
Pirritx eta Porrotx



Doinua:
Abuela Maria Luisa
Kopla

Amonari kantu hau ere eskaini zion Jonek.

Geranioa loretan **dela**, (Bis)
ikastolatik **banatorrela**
leihoan zain daukat **abuela**.

Hain da luzia **Andaluzia**,
han da hizketa **berezia**,
hangoa du bere **grazia**!

Beti oroitu arren gure abuelita Maria Luisak
Andaluzia eta olibondoan geriza,
maite du trikitixa!

Herritik urrun, bihotzak **pena**, (Bis)
gaztea zinen, guapa, **morena**,
hartu zenuenean **trena**.

Triste heldu arren **Euskal Herrira**,
zure begiak piztu **dira**
gure mendiei **begira**.

Beti oroitu arren gure abuelita Maria Luisak
Andaluzia eta olibondoan geriza,
maite du trikitixa!

Irriak diz-diz ezpain **ertzean**, (Bis)
iloba denok zure **etxean**
zuri euskaraz **kantatzean**!

Nahiz ta hizkuntza ez den **berdina**,
aspaldi duzu lagun **mina**
gure amona **Joxefina**.

Beti oroitu arren gure abuelita Maria Luisak
Andaluzia eta olibondoan geriza,
maite du trikitixa!

Zure zartagin eta **lapiko**, (Bis)
zure lur eta zure **herriko**
usain ta zapore **magiko**.

Kontu kantari sillan **jarrita**,
gure etxeko lore **polita**,
maite zaitugu **abuelita**!

Eta etorri zenetik maite du gure trikitixa,
Andaluzia eta olibondoan geriza,
Abuela Maria Luisa!

Oinak hautatu egiten dira

Kantua Maria Luisari eskainita dago. Eta azken estrofan, hiru oin hauek hautatu ditu bertsolariak:

Eta etorri zenetik maite du gure **trikitixa**,
Andaluzia eta **olibondoan geriza**,
Abuela Maria Luisa!



Zergatik, justu, hitz horiek? Zer mezu eman nahi digu?